

fiAR

arabako nazioarteko
arte erlazional jaialdia

2026ko azaroaren 12tik-15era
EGITARAUA

FIAR

itzuli da. Eta, oraingoan ere, ez dator bakarrik

Duela urtebete lehen aldiz kontatu genizun, idatziz, zer den FIAR izeneko kontu hau. Harreman Arteaz aritu gintzaizkizun lagun berri bat aurkezten denean bezala: zuk eta hark elkarren gogoko izatea zen gure nahia. Lehen ediziotik, sarea ehotzen aritu gara, espazioak, erakundeak eta proiektuak inplikatuz, eta dozenaka dira egun gurekin lanean ari direnak. Horrexegatik, oraingo honetan bestelakoa izango da: proiektu bat aurkeztu beharrean, hazi eta hazi ari den komunitate baten kide izatera gonbidatuko zaitugu.

Hala ere, oraindik ezagutzen ez bagaituzu, hona hemen gure aurkezpena. FIAR Harreman Arteen Nazioarteko Jaialdiak harremanean —eta ez objektuan— ardazten du sorkuntza artistikoa. Hona ez zara amaierako txaloak jaso nahi dituen lan amaitu bat ikustera etorriko; aitzitik, zerbaitetan parte hartzera etorriko zara, zu gabe ez baitago artelanik.

“FIAR fida-tzekoa da”

Iaz La Dramática aldizkarirako idatzi genuen esaldi horrek gure iparrorratza izaten jarraitzen du gaur egun ere. “Fiar” hitzak “fidatu” esan nahi du gaztelaniaz, eta FIAR, hain zuzen ere, fidatzekoa da. Jaialdi hau sinplea bezain konplexua den zerbait ospatzeko jaio zen: konfiantza. Ideia honen bueltan jaio ere: aurrera egiteko ez gara inorekin lehiatu behar; elkar zaindu behar dugu, ostera.

Urtebete beranduago, gauza bera defendatzen jarraitzen dugu, baina oraingoan proiektu, espazio eta erakunde berriak ditugu alboan. Izan ere, inoiz ez gara bakarrik aritu, harreman-kate bat eratu baitugu hasieratik.

Aurten, gainera, eta arraroa iruditu arren, FIAR jaialdia barrurantz haziko da. Ekimenak programatzeaz gain, horiek pentsatzeko espazio bat irekiko dugu. Hala, **Estetikari eta Harreman Arteari buruzko Lehen Jardunaldiak** jaioko dira: bi goizetan programaren ardatz den pentsamendu guztia funtsatuko dugu, estetikaren, komisariotzaren, antropologiaren edo performance-ikasketen ikuspegitik —eta Espainiako, Mexikoko, Erresuma Batuko eta Brasilgo ahotsak mahai berean jarriz—, halako praktiken, haien aniztasunaren eta haien indar politikoaren konplexutasuna ulertzeko.

Edizio honetan **ConFIARse** deialdia estreinatuko dugu. Horren bidez, Arabako eta Euskadiko artista eta konpainiek beren proiektuak aurkeztu ahalko dizkiete programatzaileei zuzenean, pitching formatuan, eta, hala, zubiak eraikiko dituzte bertakoaren eta nazioartekoaren artean. Halaber, espazio lotsagabe bat irekiko dugu, premiazko gogoetari ekiteko: **Tortilla Bueltatu**. Hala, tortilla eta guzti elkartuko gara sektoreko arazoak, gehien eragiten diguten horiek, mahai gainean jartzeko. Eta horiei buelta ematen saiatuko gara guztion artean.

Gainerako programak diziplinen arteko mugak lausotuko ditu beste behin. **Dejabú**k desira ezkutuen negutegi bilakatuko du diseinu grafikoko estudio bat Adurtza auzoan. **Idoia Zabaleta**k begiak ixtera gonbidatuko zaitu zure betazalek ikusmen-masaje bat jaso dezaten, amets labur batek irauten duen tartean. **Cláudia Müller**rek bere dantza garaikidea ekarriko dizu zu zauden tokira: etxera, ospitalera nahiz merkatura. **Andy Smith**ek eta **Lynsey O'Sullivan**ek Una Asamblea Ciudadana estreinatuko dute gaztelaniaz, eta ikus-entzuleak izango dira klima-eztabaidaren ahotsak.

La Soledad konpainiak oturuntza batera gonbidatuko zaitu, zeren ba al dago mahaia partekatzea baino harreman-ekintza handiagorik? **Natalia Fernandes**ek inauteri kutsuko gau-emanaldi postkolonial bilakatuko du formatu txikiko kontzertu bat, eta ozen abestu ohi ez diren auzi historikoak ezagutaraziko ditu bere abesti-zerrendaren bidez. Eta **Alba María**ren eta **Alma María**ren KORE proiektuak espazio bat irekiko du — hiru mugimendutan: lantegi batean lehenik, topaketa ireki batean ondoren, eta kaleko ekintza batean azkenik— ugalketa-dolua eta ez-amatasuna publikoki izendatzeko, isilduak izaten baitira gehienetan.

Harreman-begiradak ez du bilatzen bi pertsonak elkarri begiratzea; aldiz, elkarrekin bira daitezela nahi du, munduari batera so egiteko. Horregatik, FIAR jaialdiaren bigarren edizio hau elkarri lagun egiteko gonbidapen bat izatea espero dugu, konfiantza garatzeko xedez: bai loturen katalizatzaile den artearekiko, bai talde-ahalmenarekiko, bai errealitate hobeak — elkarrekin— irudikatzeko daukagun gaitasunarekiko.

Pertsona, entitate eta administrazio guztiei, mila esker FIAR jaialdiari eusten jarraitzeagatik.

iara Solano Arana
Zuzendaritza artistikoa

Gasteizen eta Araban itxarongo zaituztegu azaroaren 12tik 15era

egun guztietan
12–15 AZA

KORE - DOLU-KUTXA

AUZO NEGUTEGIA (Instalazioa) · 9:00–17:00 · Vitoria-Gasteiz

AUZO NEGUTEGIA (Ibilaldia eta soinu-pieza) · Ordutegi librea

PUPA – PUPITA – PUPILA · 12:00–18:30 · Vitoria-Gasteiz

DANZA CONTEMPORÁNEA A DOMICILIO

+12

AUZO NEGUTEGIA (kolektibo) 17:00

KORE: AURKEZPEN-TOPAKETA · 19:30 · Vitoria-Gasteiz

+13

KORE EKINTZA · 17:30 · Vitoria-Gasteiz

UNA ASAMBLEA CIUDADANA · 19:30 · Vitoria-Gasteiz

+14

HARREMAN-ESTETIKARI ETA -PRAKTIKARI BURUZKO LEHEN JARDUNALDIAK · 10:00 – 13:30 · Vitoria-Gasteiz

GRACIAS TOTALES · 14:30 · Vitoria-Gasteiz

UNA ASAMBLEA CIUDADANA · 18:30 · Elciego

EL CARNAVAL NO ES ALEGRE · 18:30 · Agurain

+15

HARREMAN-ESTETIKARI ETA -PRAKTIKARI BURUZKO LEHEN JARDUNALDIAK · 10:00 – 13:30 · Vitoria-Gasteiz

GRACIAS TOTALES · 14:30 · Murua

EL CARNAVAL NO ES ALEGRE · 14:00 · Vitoria-Gasteiz

AUZO NEGUTEGIA (kolektibo) · 17:00

ATARIKOA

EGITARAUA

EDUKIAK

MAPA

AUZO NEGUTEGIA

Deiabú Konpainia
(Gipuzkoa)





AUZO NEGUTEGIA

Dejabú Konpainia (Gipuzkoa)

INSTALAZIOA

azaroaren 12tik aurrera (osteguna) 9:00-17:00 · Habemus Estudioa (Zumakadi Ibilbidea, 25)

IBILALDIA ETA SOINU-PIEZA

taldean egitekoa (azaroaren 12an, osteguna, eta 13an, ostirala, 17:00etan) edo libreki egitekoa (arazoaren 12tik, osteguna, azaroaren 15era arte, igandea, zuk hautatutako egunean eta orduan) · Sarrerak 6€

Auzo Negutegia esku-hartze artistiko bat da, eta auzo bateko espazioa —kasu honetan, Adurtzakoa— eraldatzean datza, eguneroko paisaia aldatuko duen ezusteko elementu bat txertatuz eta hura esperientzia kokatu baten abiapuntu bilakatuz. Proiektua etorkizunari buruzko espekulazio-ariketa bat da, eta auzoaren eguneroko bizitzan eten bat eragitea proposatzen du, jakin-mina eta arreta pizteko.

Eraldaturiko espazioa soinu-esperientzia baten abiapuntua izango da, zeinak auzotik ibilaldi bat egiteko proposatuko baitie partaideei, libreki edo taldean. Audio-gida batek behaketara gonbidatuko gaitu, lekua habitatzen duten aztarnei eta historiei ere arreta eskainiz.

Ibilbideak, halaber, zenbait galdera luzatuko dizkigu, behaketa gure bizipenekin lot dezagun; gainera, auzokideen eta bisitarien hausnarketak eta pentsamenduak ere jasoko ditu.

Ekarpen horiek espazio publikoan eta esku-hartzean bertan txertatuko dira, partaideek ere sorkuntza-lana egin dezaten. Proiektuak ikusgarri egingo ditu auzoko geruza hautemangarriak, eta espazio bat irekiko die eskuarki eremu publikoan lekurik ez duten emozioei, kezkei eta pentsamenduei: egunerokoaren etenaldi txiki horren bidez, arreta aktibatu, eta habitatzen dugun lekuaren gaineko bestelako begirada bat proposatuko da.

Dejabu Konpainia 2001ean sortu zen, eta, geroztik, berezko ahotsa garatu du arte eszenikoen eremuan, ikuspegi estetiko bereziari eta artearen ikerketan sustraitutako lan-metodologia irmoari esker. Ainara Gurrutxagaren, Urko Redondoren eta Miren Alcaláren zuzendaritzapean, bizipen ausart eta murgiltzaileak sortzen ditu konpainia honek, formatu tradizionalak desafiatuz eta ikus-entzuleak hausnarketa poetiko bat egitera gonbidatuz. Dejaburen lanak lotura estua mantentzen du tokian tokiko errealitateekin eta komunitatearekin, baina gai unibertsalak ere jorratzen ditu, hala nola memoria, nortasuna eta gizakiaren eta ingurumenaren arteko harremana.

www.dejabu.eus

KORE - DOLU-KUTXA

Alba María eta Alma María
(Madril – Valladolid)





KORE – DOLU-KUTXA

Alba María eta Alma María (Madril – Valladolid)

AUTOTEATRO

Jaialdiko egunetan zehar eskuragarri. Sarrerak 10€

Dispositibo hau 14 urtetik gorako pertsonei zuzentzen zaie, eta, salbuespenez, 8 urtetik gorakoei. Azken horiek, ordea, dispositiboa ulertzen lagunduko dien pertsona heldu batekin parte hartu beharko dute.

KORE-kutxa dispositibo artistiko bat da, baimendu gabeko doluetan eta dolu anbiguoetan lagun egiteko sortua. Heriotza-erritualak gauzatzen laguntzen du, galdutako objektuari agur esaten, edo bizitzarekin (bir)konektatuko gaituen desira berri bat aurkitzen. Hainbat formatutan egongo da eskuragarri: kutxa bakoitzak eskuz eta arreta handiz sortutako elementu poetiko bat izango du barnean, baita hura aktibatzeko iradokizunak ere, norberaren beharrak kontuan hartuz, norberak bizi duen unea errespetatuz eta dolu bakoitzari egokituz. Kutxak FIAR jaialdian programatutako jarduera bakoitzaren hasieran eta amaieran egongo dira eskuragarri. Kutxa bat lortu nahi baduzu, bilatu lantaldeko norbait eta hark emango dizu; bestela, idatzi iezaguzu **fiarfestival@gmail.com** helbidera zurea erreserbatzeko.

Alba Dunas Gestalt arteterapeuta eta sortzailea da. Sorkuntza artistikoaren eta laguntza emozionalaren bueltan egiten du lan, eta, sortze-prozesua bizi-motore gisa ulertzeaz gain, oinarrizko adierazpen-kanal gisa ulertzen du gorputza. Últimamente solo miro al río lanean, ugalketa lagunduaren inguruko tabua jorratzen du, keinu suspergarri bilakatuz sorkuntza. Bilboko Bizie eskolan gorputz-kontzientziari eta emozioak desblokeatzeari buruzko saioak ematen ditu. Bulegoa, aldiz, Madrilen dauka; Trazo du izena, eta prozesu emozionaletarako laguntza ematen du han, heldu, haur nahiz familiei.

www.albadunas.es

Alma María Gizarte eta Kultur Antropologian lizentziaduna da, gizarte-langilea eta arteterapeuta, Gestalt terapian, trauma konplexuan eta psikoanalisian aditua. 2007 eta 2015 artean alderdi artistikoa garatu zuen performer gisa Elefante Rosa Poesía kolektiboan, eta zenbait jaialditan hartu zuen parte, tartean TAC eta Aurillac jaialdietan, Valladoliden eta Frantzian, hurrenez hurren. Gaur egun igaroaldiko errituen sorkuntza ikertzen dihardu, dolu anbiguoak eta baimendu gabekoak kolektibizatzeko, eta hiletak asmatzen ditu horretarako.

www.telate.es

KORE fidatzekoa da.

Sentimenduekin lagun egingo dizugu, eta kutxa hau sortu dugu horretarako.

KORE: AURKEZPEN-TOPAKETA

KORE proiektu artistiko eta sozial bat da, ugalketa-dolua eta ez-amatasuna jorratzeko helburua duena, sorkuntza kolektiboaren, hausnarketa publikoaren eta erritu-ekintzaren ikuspegitik. Hiru mugimendu osagarrik eratzen dute proiektua: sorkuntza-tailer batek, topaketa ireki batek eta kalean egingo den performance-ekintza batek. Hala, intimitatetik kolektibitatera doan ibilbide bat proposatuko da: keinu pertsonaletik espazio partekatura, isiltasunetik kontaketara.

Proiektuaren izena Kore-Pertsefoneri zor diogu, urtero iluntasunera jaisten eta handik itzultzen den neska gazteari, bera baita galeraren eta eraldaketaren arteko bidearen ikurra. Izena, halaber, core hitzetik dator: gure bizi-muin sakona da corea, eta handik eusten diogu gertatzen zaigun orori, baita forma eman ere. Hortxe kokatzen da proiektu hau: doluaren konplexutasunaren eta haren sortze-ahalmenaren arteko leku intimo horretan. Jaitsiera sustrai bihurtzen da espazio horretan, eta esperientzia, aldiz, materia partekatu.

Topaketa hau ibilbidearen bigarren geltokia izango da. Urriko tailerrean sortutako bizipenak eta materialak partekatuko ditugu hemen, ikuspegi esperientzial eta parte-hartzaile batetik; hots, ez-akademikotik. Ugalketa-dolua izendatzeko eta haren inguruko kontakizun bat eraikitzen hasteko espazio bat sortu nahi dugu. Zure bizipena partekatu nahi baduzu, edo, besterik gabe, lagun egin eta entzun nahi badiguzu, irekita dituzu topaketa honetako ateak. Zure zain gaituzu.

AURKEZPEN-TOPAKETA

azaroaK 12 (osteguna)
9:30etatik 21:00etara · Arkabia (Postas kalea, 13) · Vitoria-Gasteiz

doako jarduera

KORE: EKINTZA

Pieza honek instalazioa eta harreman-performancea uztartuko ditu ugalketa-doluak eta ugalketa lagunduko prozesuak espazio publikoan ikusarazteko. Metatze-ekintza baten eta segizio baten bitartez, bidea, desira, galera eta hutsunea irudikatuko dira, eta, hala, hileta bat egingo zaio guraso-nortasun gauzatu gabeari.

Halaber, duintasuna eman nahi zaie desiratuak izan diren baina argirik ikusi ez duten giza bizitzei. Hartara, ugalketa-doluetarako laguntza-falta eta horien gaineko isiltasuna erreparatzen saiatuko gara, eta, orobat, igarotze-errituen gabezia ere: halako galera orokorretarako errituen gabezia, batetik, eta ugalketa lagunduko prozesu jakinetara bideratutakoen gabezia, bestetik.

Bi emakumek gauzatuko dute pieza hau, baina partaidetza irekikoa izango da, bertan parte hartzeko aukera izango baitute urriko bi asteburutan Arkabian egingo den tailerrean parte hartuko duten emakumeei.

Garrantzitsua: ekintza 18:00ak arte gauzatuko da Loma Jeneralaren plazan; ondoren, segizioan abiatuko da Santa Isabel hilerrira. Bidean lagunduko diguzuela espero dugu.

JARDUERA PERFORMATIKOA

azaroak 13 (ostirala)
16:30etatik 18:30etara
Loma Jeneralaren enparantza · Vitoria-Gasteiz

doako jarduera

PUPA PUPITA PUPILA. IKUSMEN-MASAJE BAT

Idoia Zabaleta
(Araba)



PUPA PUPITA PUPILA. IKUSMEN-MASAJE BAT.

Idoia Zabaleta (Araba)

DISPOSITIBO PERFORMATIKOA

abenduaren 12tik (osteguna) 15era arte (igandea) · 12:00-18:30 · Izaskun Arrue Kulturgunea (IAK) · Errementari kalea · Vitoria-Gasteiz · Sarrerak 10€

Iraupena: 65 minutu. Oinetakoak kentzeko eskatuko dizkizuegu.

Gomendatutako adina: 12 urtetik aurrera.

Ikusmen-masajea performance-dispositibo bat da, 1:1 formatukoa; hau da, bi pertsonek hartzen dute parte, aurrez aurre. Bide luzeko ikerketa artistiko baten barnean kokaturik dago, eta gorputza pertzepzio- eta afinazio-tresna sentikor gisa aztertzen du.

Hartu hitzordua eta etorri antzokira; hemen, pertsona batek egingo dizu harrera, eta ohatila batean etzatera gonbidatuko zaitu, objektu txikiak dituen mahai baten ondoan. Begiak ixteko eskatuko dizu, garezurraren sakon-sakonean uzteko, eta, begien ordez, betazalak erabiltzeko. Jakina, prestutasun-ekintza bat da hori, eta abenturarako gogoz egon behar duzu. Hortik aurrera, argiak itzali, eta masaje bitxi bat jasoko duzu, zera gogoraraziko dizuna: amestu bitartean ere ikusi egiten duzula. Masajeak ordubete iraungo du, baita antzezlanak ere; ametsa, ordea, laburragoa izango da. Ordurako, portuan izango gara.

Masajistak: Leticia Morales eta Idoia Zabaleta

Ahotsak: Camila Tellez, Miriam Inza eta Ainara Legardón

Entzungai izango dira M. Benitoren The Most Dramatic Panda EVER lana eta Ode Aseguinolazaren An acoustic balad lana (Stolen Voices albumekoa).

Eskerrak: Rebecca Collins, M. Benito, Karlos Martinez B. eta Pablo Marte.

Sormen-egonaldiak: Azala, EiMa, L´animal a l´esquena eta Casa Vella

Idoia Zabaleta
Koreografoa. Biologia Fakultatean ekosistemetan eta populazioen dinamikan espezializatu zen. Laurogeita hamarreko hamarkadan dantza berria eta inprobisazioa ikasi zituen. 2000. urtetik aurrera, bere lanak sortzen ditu, eta 2008az geroztik, Azala arte-egonaldietarako espazioa eraiki eta zuzentzen du, Azala bizi den herrian dago, Arabako hegoaldean, Lasierra herrian. 2019az geroztik, Borradores del futuro bildumako erredakzio-taldeko kidea da. Bilduma horrek etorkizuna irudikatzen duten alegiak biltzen ditu, esperientzia zehatzetatik abiatuta. 2023an, Tractora artista-kooperatibak Foku 2 argitaratu zuen, haren ibilbide artistikoari buruzko begirada bat. 2024-2025ean, Azkuna Zentroako artista elkartua da.

DANZA CONTEMPORÁNEA A DOMICILIO

Cláudia Müller
(Brasil)




Girl

DANZA CONTEM-PORÁNEA A DOMICILIO

Cláudia Müller (Brasil)

DANTZA EMANALDIAK

azaroaren 12tik (osteguna) 15era (igandea)· Hainbat ordutan · Hainbat lekutan

Iraupena: 15-25 minutu emanaldi bakoitzeko

Danza Contemporánea a Domicilio bakarkako dantza garaikide emanaldi bat da, take-away formatukoa.

Pieza honek ezusteko lekuetara eraman nahi du dantza garaikidea, hala nola oharkabeko espazio publikoetara eta egunerokoaren hutsuneetara. Dantza hau ez da horrenbeste arduratzen mugimendu zehatzez; bai, ordea, dantzaren hartzailearekin elkartzean sortzen diren irudizko espazioez eta galderez.

Nork eska dezake etxez etxeko dantza garaikidea? Edonork. Nora eska daiteke? Arabako edozein tokitara: zure etxera, zure lantokira, merkatura, plaza batera, kafetegi batera, eskola batera...

Oparitzeko ere eska daiteke.

Pieza honen etxez etxeko emanaldiak azaroaren 12tik 15era gauzatuko dira, Araban. Guztira 15 emanaldi egingo dira, erreserben hurrenkerari jarraituz, FIAR jaialdiaren barruan, azaroaren 12tik (osteguna) 15era (igandea).

Doako pieza hau jasotzeko, FIAR jaialdian programatutako beste pieza bateko sarrera bat erosi behar duzu lehenik. Idatzi fiarfestival@gmail.com helbidera edo bidali WhatsApp mezu bat 675128005 zenbakira, eta eguna eta ordua adostuko ditugu pieza hau zuk adierazitako tokian jaso dezazun.

Ideia, sorkuntza eta performancea:
Cláudia Müller

Kolaborazio dramaturgikoa:
Micheline Torres

Diseinu grafikoa:
Theo Dubeux

Ekoizpena:
Milene Chinquio

Cláudia Müller artista, kuradorea eta irakaslea da. Haren artelanek interes berezia dute askotariko publikoekin eta haien testuinguruekin sortzen diren harremanekiko. Bi hamarkadatik gorako ibilbidean, nazioartean ere aritutakoa da Müller, egonaldi artistikoak egin baititu Espainian, Portugalen eta Brasilen, hala nola Fabra i Coats, La Poderosa, Graner, La Casa Encendida.

www.claudiamuller.com

UNA ASAMBLEA CIUDADANA

Andy Smith & Lynsey O'Sullivan
(Erresuma Batua)


A
CITIZENS'
ASSEMBLY

UNA ASAMBLEA CIUDADANA

Andy Smith & Lynsey O'Sullivan (Erresuma Batua)

ANTZEZLAN PARTE-HARTZAILEA

azaroak 13 (ostirala) · 19:30etan · Erdi Aroko Hiriguneko Enpresa Zentroko Agora aretoan (Eskola kalea, 10) · Vitoria-Gasteiz · Sarrerak 6€

azaroak 14 (larunbata) · 18:30etan · Maisuen Etxea (Norte kalea, 26) · Eltziego

Una Asamblea Ciudadana partaidetzan oinarritutako lan bat da, aktorerik gabekoa, publikoak berak ematen baitio ahotsa lanari. Ikus-entzuleei hainbat ahots antzezteko gonbita egingo die antzezlan honek; zientzialarien eta eszeptikoen, agnostikoen eta ekintzaileen ahotsak, hain zuzen. Hala, partaideek taldean hausnartuko dute egungo arazo larrienetako baten inguruan: klima-larrialdia. Heldu bezain laster, gidoi bat jasoko du ikus-entzule bakoitzak, eta orduantxe erabakiko du pertsonaia hori antzeztuz parte hartu nahi duen. Hirugarren ekitaldira heltzean, eten egingo da testua, eta benetako asanbladak hartuko du hitza, eztabaida gidaturako espazio bat sortuz.

Antzezlanak zirkulazio-eredu jasangarri eta komunitario bat proposatzen du; horretarako, tokiko eragileek aktibatuko dute testuinguru bakoitzean. Una Asamblea Ciudadana lanaren itzulpena FIAR jaialdiak egin du; beraz, hauek izango dira gaztelaniazko lanaren lehen bi emanaldiak. Lagun egingo diguzula espero dugu, baita antzeztera animatuko zarela ere... Eta antzeztera.

Here & Now-ren laguntzarekin aurkeztua-Performance Created in England.

Andy Smith sortzaile eszeniko britainiarra da, eta antzerki-forma irisgarriak, parte-hartzaileak eta inpaktu txikikoak ikertzen egina du bidea.

www.andysmiththeatre.com

Lynsey O'Sullivan aitzindaria da antzerki-praktika aplikatuetan eta partaidetza komunitarioan, eta ibilbide eraldatzailea egin du kultura-hezkuntzan, inklusioan eta gazte eta komunitateekin lanean.

www.culturaldemocracy.co.uk

GRACIAS TOTALES

La Soledad konpainia
(Bartzelona)





GRACIAS TOTALES

La Soledad konpainia (Bartzelona)

OTURUNTZA

azaroak 14 (larunbata)
14:30 · Tximeleta Leku (Txalaparta Kalea, 16, 01006) · Vitoria-Gasteiz · Sarrerak 10€

azaroak 15 (igandea)
14:30 · Murua

Eskerrak emateko erritu bat da **Gracias totales**, mahai baten inguruan egitekoa. Oturuntza bat izango da abiapuntuko egoera, eta testuak, diskurtsoak, keinuak eta mugimenduak bilduko ditu eskerrak emateko ekintzaren inguruan. Harreman-pieza honetan, erritualak espazioa partekatuko du janarekin, elkarrizketarekin, magiarekin eta keinu zein hitz baten ikerketarekin. Lagun talde bat mahai baten inguruan bilduko da modu ederrean eskerrak ematen jakin zuten artista, poeta, abeslari edo aktoreak oroitu eta gogora ekartzeko. Hizkuntza ezezagunak arakatuko dituzte —kitxua, islandiera eta japoniera tarteko—, baita esker onaren sonoritate kutsagarria, testura, zaporea, usaina eta botere sotilki eraldatzailea ere. Eta, hori egin bitartean, bada partaideengan are biziago piztuko den zerbait: sendabide kutsakor baten moduko zerbait. Era berean, esker onak eman bitartean, mahaiaren erdian aldare txiki bat eraikiko dute antzezleek, familia-argazkiekin, liburuekin, lepokoekin, landareekin, maskorrekin, harriekin, talismanekin eta abarrekin. Objektu horiek guztiek esker onaren eskaintza bizia osatuko dute, haren erregistro fidel eta ukigarriena, eta publikoari gauza bera egiteko eskainiko zaio. Izan ere, azken finean, inoiz ez dugu behar beste eskertzen, eta eskertzeak ez du iraungitze-daturik.

Idea, sorkuntza eta antzezpena: La Soledad konpainia (Esteban Feune de Colombi eta Marc Caellas)

Gonbidatu berezia: Guadalupe Yáñez

Laguntzailea: Azala proiektua

Eskerrak: Idoia Zabaleta, iara Solano, Carlos Rod eta Caterina Varela.

Marc Caellasek eta Esteban Feune de Colombik La Soledad konpainia sortu zuten Bogotan 2011n, eta oximoron hori erabiltzen dute konpainia ibiltariek beren bakardadeekin bat egiteko. Hamabost urtez literatura anplifikatuari, antzerkiari edo performanceari loturik garatu dituzten proiektuetan era poetiko eta ludikoan irakurri eta interpretatu behar dira testuak —poemak, manifestuak, abestiak, grafitiak—, beste diziplina batzuekin lotuz, disziplina horiei ere arreta eskainiz, eta idatzizko dokumentuen kolorea, ahotsa, usaina, are testura ere eszenifikatuz.

www.companialasoledad.com

EL CARNAVAL NO ES ALEGRE

Natalia Fernandes
(Bartzelona)



EL CARNAVAL NO ES ALEGRE

Natalia Fernandes (Bartzelona)

KONTZERTU PERFORMATIBOA

azaroak 14 (larunbata) · 18:30 · Harresi Aretoa (Zapatari kalea 15) · Agurain, Araba · Sarrerak 6€

azaroak 15 (igandea) · 14:00 · Montehermoso Kulturunean · Frai Zacarias Martinez kalea 2 · Vitoria-Gasteiz · Sarrerak 6€

Natalia Fernandesek kontzertuaren kodea erabiltzen du bere proposamen koreografikoaren egitura definitzeko, eta begirada berri batekin ekartzen du eszenatokira dantzan ari diren gorputzak ikusteko eta haiekin harremana sortzeko modua. Kontzertua autosuntsitu egiten da Nataliak bere herrialdearekin daukan historiarekiko begirada bat eraikitzen saiatzen den heinean. Etegabeko eraikuntza/suntsiketa horrek badu sorburu bat: konplexua den eta eraldaketa bizian dagoen historia bati modu estatikoan begiratzeko edo hura definizio hutsaletatik jorratzeko ezintasuna. Kontzertua mugitu egiten da, eta gu ere mugitzen gaitu. Brasilgo pentsamendu antropofagikoak, egilearen pentsamenduaren horizontaltasunak eta gazte-lengoaiaren errebeldiak presentzia handia dute, kontzertuaren dramaturgia bai gorputzean bai eszenan islatzeko. Ezarritako kodeen bidezko desobedientzia nabarmena da prozesu honetan, musikaren eta gorputzaren bidez geneologia berezi bat ikusarazten saiatzeko. Natalia Fernandesek bere aukera eszeniko guztiak hedatzen ditu bere lurraldetik kanpoko inauteri-jai bat sortzeko. **El Carnaval No Es Alegre** lanak Brasilgo testuinguru politiko eta historikoaren eta gorputz migratzaile baten artean nabigatzera gonbidatuko du publikoa, etxearen ideiari adiera berri bat eman nahian. Kontraesanak onartzeko, trauma dantzatzeko eta ipurdia mugitzeko kontzertua izango da honako hau.

Sortzailea eta antzezlea: Natalia Fernandes / Koordinatzaile teknikoa: Iván Mozetich / Kanpo begirada eta aholkularitza dramaturgikoa: Celso Giménez / Iván Mozetich / Soinu-espazioa: Vicky Leaks / Laguntza: Centro Coreográfico Canal, Conde Duque, La Caldera/Los Barros, Madrilgo Carlos III.a Unibertsitatea, Casa do Brasil, Residencias Paraiso, Fiot, Dansa Valencia eta Festival TNT

Natalia Fernandes koreografoa, dantzaria eta Anatomia Asmatua izeneko metodologiaren sortzailea da. Graner sorkuntza-zentroko artista elkartua da 2026/27 ikasturte honetan, eta gorputzaren inguruko ikerketa eszeniko eta metodologiko bat garatzen ari da, gorputza ardatz hartutik fikziozko eraikuntza gisa eta gatazka-, asmakuntza- eta eraldaketa-espazio gisa. Bere jardunak ikuspegi postkolonial eta antropofagoak hartzen ditu, eta gorputza, irudimena eta hitza artikulatzen, diskurtso koreografiko hegemonikoak zalantzan jartzeko. Fernandesen lana hainbat plazatan aurkeztu da: Mercat de les Flors-en, Conde Duque-n, Festival TNT jaialdian, Dansa València jaialdian eta nazioarteko eszenatokietan.

instagram: @nataliafernandes/

HARREMAN-ESTETIKARI ETA -PRAKTIKARI BURUZKO LEHEN JARDUNALDIAK



HARREMAN-ESTETIKARI ETA -PRAKTIKARI BURUZKO LEHEN JARDU-NALDIAK

JAURDUNALDIAK

azaroak 14 (larunbata) eta 15 (igandea) · 11:30etatik 13:30etara · Montehermoso Kulturunean · Frai Zacarias Martinez kalea 2 · Vitoria-Gasteiz

Zer gertatzen da artelan bat ez denean objektu bat, esperientzia bat baizik? Behatzen edo kontsumitzen den horrek ez du axola; aitzitik, espazioa eta denbora partekatzen duten pertsonen artean gertatzen den horrek axola du: elkarrizketa batek, truke batek, bidaia batek, prozesu batek, bizipen batek.

Laurogeiko hamarkadaz geroztik, harreman-estetikak eta -praktikak errotik eraldatu dute arte garaikidea, artelanaren grabitate-zentroa harremanetara lekualdatuz. Helburua jada ez da forma itxiak sortzea publikoak begiets ditzan. Aldiz, egoerak, dispositiboak eta testuinguruak sortzea da xedea, publikoa ez dadin ikusle huts izan, baizik artelanaren zati aktibo.

FIAR jaialdiak, bigarren edizio honetan, halako praktikak plazaratu eta haiei buruz hausnartzeko espazio bat irekiko du, artea —eta, zehazki, arte bizia— esperimentazio sozial eta kulturalerako lurraldea dela ikusarazteko. Jardunaldi hauen bidez, gure programaren ardatz eta funts den pentsamendu guztiaren garrantzia nabarmendu nahi dugu: komunitateen aktibazioa, diziplinen uztarketa eta esperimentazio eta hausnarketa kritikorako espazio eta prozesuen irekiera.

Horretarako, estetikaren, praktika artistikoaren, komisariotzaren, hezkuntzaren eta performance-ikasketen nazioarteko ahotsak ekarriko ditugu. Izan ere, ikerketa-eremu horri aniztasunetik begiratu behar zaio haren konplexutasuna ulertzeko, are marko teoriko irmoetatik eta praktika kokatuetatik ulertu ere —eta haien ahalmen politiko eta pedagogikotik—. Espainiako, Mexikoko, Erresuma Batuko eta Brasilgo hizlariak izango dituzte jardunaldi hauek, eta praktika kokatu, zehatz eta partekatu gisa hausnartuko dute arteaz. Guztion artean galdera honen bueltan aritzeko espazio bat izango dira: zer esan nahi du beste lagun batzuekin batera artea egiteak?

Doako jardunaldi hauetan parte hartzeko, inprimaki honetan eman behar da izena.

IZEN-EMATEA

ConFIARse:
proiektuak, pitching formatuan

Jaialdira gonbidaturiko nazioarteko programatzaileei —Brasildik, Mexikotik eta Erresuma Batutik etorritakoei— lau proiektu aurkeztuko zaizkie; deialdi bidez hautatutako proiektuak izango dira horiek, Arabako edo Euskadiko artista edo konpainienak. Topaketa honek zubiak eraiki nahi ditu bertako sorkuntzaren eta nazioarteko testuinguruen artean, baita etorkizuneko kolaborazioei ateak ireki ere. Sarrera librea.

azaroak 14 (larunbata) · 10:00etatik 11:00etara · Montehermoso Kulturunea (Frai Zacarias Matinez kalea, 2) · Vitoria-Gasteiz

Tortilla Bueltatu

Win-win ekimen bat da honako hau: guk gosaltzera gonbidatuko zaitugu, eta zuk tortillari buelta ematen lagunduko diguzu. Bai, bai, benetan. Gosaltzeko elkartuko gara —sorpresa: tortilla egongo da—, eta gehien erretzen gaituzten gaiak ekarriko ditugu mahai gainera: sektoreko “hot take” direlakoak. Bestela esanda, talde txikian eztabaidatu eta jendaurrean nekez partekatu ohi diren kontu horiez arituko gara.

Oso erraza da: norbaitek arazo bat plazaratuko du (edo, sukaldaritzako metaforekin jarraituz, meloi bat irekiko du), eta hari buelta ematen saiatuko gara guztion artean, unean bertan, bero-beroan, konponbide azkar bat bilatzeko. Txostenik gabe, Power Point aurkezpenik gabe. Patata beroak besterik ez ditugu behar, eta eguna hasi aurretik mundua konpontzeko gogoa.

azaroak 15 (igandea) · 10:00etatik 11:00etara · Montehermoso Kulturunea (frai Zacarias Martinez kalea, 2) · Vitoria-Gasteiz

Hitzaldiak

Ikerketa eszenikoa eta harreman-antzerkia
Juan Pedro Enrile (Espainia)

Artea topaketa-lan arruntean
Claudia Müller (Brasil)

Publikoa berrirudikatu
Kate Craddock (Erresuma Batua)

Mexikoko Arteen eta Humanitateen 4X4 Jaialdia
Shantí Vera (Mexico)

azaroak 14 (larunbata) eta 15 (igandea · 11:30etatik 13:30etara Montehermoso Kulturgunea Vitoria-Gasteiz

Ikerketa eszenikoa eta harreman-antzerkia

Juan Pedro Enrile
(Espainia)

HITZALDIA · HARREMAN-ESTETIKARI ETA -PRAKTIKARI BURUZKO LEHEN JARDUNALDIAK

azaroak 14 (larunbata) · 11:30etatik 12:15etara · Montehermoso Kulturunea · Frai Zacarias Martinez kalea, 2 · Vitoria-Gasteiz

Sorkuntza artistikoko prozesu batek helburu nagusi bat behar luke: mundua pentsatzea, balizkoei mundua irekitzea. Ikuspegi horren arabera, artearen ikerketa berezkoa da sorkuntza artistikoko edozein prozesutan, eta artea erresistentzia-ariketa bat ere bada, antzerki konbentzionalari aurka egiten diona, eta, gainera, sortzeko, sentitzeko eta harremanak izateko modu bereziak aurkezten dituena.

Halaxe jarduten du harreman-antzerkiak: publikoak artelanean nola parte har dezakeen arakatzen du, gaur egun artelanak arte politikoa egiteko modu bat direla aintzat hartuz. Harreman-estetikak topaketarako arte gisa ulertzen du sorkuntza artistikoa; alegia, harreman mota berriak edo bizikidetzarako modu berriak sortzen dituen arte gisa. Helburua prozesu kolaboratibo bat eraikitzea da, eta ez, ordea, emaitza bukatu bat; artea, beraz, ekoizteko eta ekiteko jarduera bat da, eta ez produktu bat. Halako artelanek aldaketa bat dakarte: zerbait irudikatu beharrean, presentzia fisikoak jartzen dituzte obraren erdigunean. Gertatzen zaigunarekin eta gure lurraldeetan gertatzen denarekin nabarmen inplikatzen gaituzte, existitzeko modu berriak habitatzeko, garenetik harago joateko, sorkuntza artistikoa eginez pentsatzean datzala ulertzeko.

Juan Pedro Enrile(Madril, 1969) artista, ikertzailea, irakaslea eta Zuzendaritza Eszenikoan katedraduna da. Zuzendaritza Eszenikoko Gradua ikasi zuen Madrilen, Arte Dramatikoaren Errege Goi-Eskolan, eta Unibertsitate Konplutentsean Antzerki Ikasketetetan egin zuen doktore-tesia. Artea harremanerako, ikaskuntzarako eta eraldaketa kolektiborako tresna gisa ulertzen du, eta hori da bere ikuspegiaren gakoa. Teatro relacional: una estética participativa de dimensión política (Fundamentos, 2016) lanean garatzen duen teorian inplikazio politikoak dituen praktika parte-hartzaile gisa deskribatzen du harreman-antzerkia. Parte-hartzean oinarritutako dispositiboekin izan duen esperientziatik eta metodologia kolaboratiboen arloko irakasle eta aholkulari gisa egindako lanetik abiatuta, harreman-praktikari heltzen dio ikuspegi kokatu eta kritiko batetik, eta arte garaikidearen testuinguru sozialekin lotzen du.

Artea topaketa-lan arruntean

Cláudia Müller (Brasil)

HITZALDIA · HARREMAN-ESTETIKARI ETA -PRAKTIKARI BURUZKO LEHEN JARDUNALDIAK

azaroak 14 (larunbata) · 12:15etatik 13:00etara · Montehermoso Kulturunea · Frai Zacarias Martinez kalea, 2 · Vitoria-Gasteiz

Hitzaldi eta solasaldi honetan, ibilbide bat proposatuko dut nire ikerketa artistikoak zeharkatzen dituen interes nagusi hauetan zehar: ikusleekin eta ikusleen artean gertatzen den topaketa, lan artistikoa jasotzeko moduak birpentsatzeko aukerak eta praktika artistikoak egunerokoan txertatzeko ekintza.

Egoera horietatik abiatuz, arteak edozein hiritarren egunerokoan nola parte har dezakeen hausnartu nahi dut, zer toki eta funtzio dituen arteak bizitzako une arruntenetan. Xede horrekin, lan hauek ekarriko ditut eztabaidara: Danza Contemporánea a Domicilio (Dantza Garaikidea, Etxez Etxe), Fuera de Campo, Precisa-se Público, Help! I Need Somebody, Trabajo Normal, Artistas sin Trabajo Normal eta Cartas para Danzas karta-jokoa. Horien bidez, halako esperientzien prozesuak, kontuak eta balizko azalpenak partekatzen saiatuko naiz.

Cláudia Müller sortzaileak (Brasil, 1970) harreman-ekosistema gisa ulertzen du dantza, eta ez, ordea, mugimendu-multzo gisa. Haren jardunak harreman-praktikaren printzipio ugari barneratzen ditu: elkarrekintza, kopresentzia, afektibitatea, horizontasltasuna, partaidetza eta zentzuaren eraikuntza kolektiboa. Dantza irakaslea da Uberlândiako Unibertsitate Federalean; Rio de Janeiroko Estatu Unibertsitatean egin zituen Arte Masterra eta doktoretza. Laster, CSICen Remedios Zafrarekin batera, ikerketa bati ekingo dio. Haren lan koreografikoaren oinarria harremanak dira, eta honako hauek arakatzen ditu: nola eragiten dioten gorputzek elkarri, nora eraikitzen diren loturak eszenan eta nola izan daitekeen dantza giza elkarrekintzaren laborategi moduko bat. Haren proposamenak parte-hartzean oinarritutako formatuetan garatzen dira, non publikoa eta komunitatea eragile aktibo bihurtzen diren. Haren ikuspegiak, bada, kolokan jartzen du koreografoa autoritate gisa, eta sorkuntzarako modu horizontalagoei irekitzen die bidea.

Publikoa berrirudikatu

Kate Craddock (Erresuma Batua)

Hitzaldi honetan, GIFT jaialdiaren zuzendari gisa izandako esperientzian eta ikuspegian oinarrituko da Craddock, testuinguru horretan ikus-entzuleen ideia nola berrirudikatzen duen azaltzeko: ikus-entzulearen eta antzezlearen arteko harremanaren ikuspegi tradizionala gaindituz, publikoa erraztasunen eta aukeren espazio batean murgiltzera gonbidatzeko.

Craddockek, gainera, Theatre and its Audiences, reimagining the relationship in times of crisis (Bloomsbury, 2024) liburua idatzi du, eta horretan jaso dituen funtsezko ideia batzuk ere jorratuko ditu, pandemiako konfinamenduetan zehar egindako ikaskuntza nagusiak nabarmentzeko asmoz. Hartara, garai hartan ikasi genuenari eta antza azkar ahaztu dugunari buruzko eztabaida ekarriko du.

Kate Craddock GIFT: Gateshead International Festival of Theatre jaialdiaren sortzailea eta zuzendaria da. 2011z geroztik, artisten eta publikoen arteko topagune gisa errotu da jaialdia, elkarrizketa, hurbiltasuna eta trukea sustatzen duten praktika garaikideetan ardaztuta. Craddocken ibilbideak sorkuntza, komisariotza eta pentsamendu kritikoa konbinatzen ditu, betiere harreman-testuinguruak sortzeko helburuarekin. Testuinguru horietan, bada, arte biziek komunitatearen eta elkarrizketaren katalizatzaile gisa jarduten dute. Praktika kolaboratiboetan doktore-tesi bat idatzitakoa da Craddock, eta horretan garatu duen metodologiak artisten, ikus-entzuleen eta lurraldearen arteko harremana jartzen du bere lanaren erdigunean. Zuzendari artistiko gisa lan egiteaz gain, ikertzaile eta irakasle aritu da Craddock Erresuma Batuko zenbait unibertsitatetan. Kuradoretzaren eta artearen gainean duen ikuspegiak aukerak sortzen ditu harremanak —gorputzen, ideien eta komunitateen artekoak— esperientzia eszenikoaren benetako eragileak izan daitezen.

HITZALDIA · HARREMAN-ESTETIKARI ETA -PRAKTIKARI BURUZKO LEHEN JARDUNALDIAK

azaroak 15 (igandea) · 11:30etatik 11:15etara · Montehermoso Kulturunea · Frai Zacarias Martinez kalea, 2 · Vitoria-Gasteiz

Mexikoko arteen eta humanitateen 4X4 jaialdia

Shantí Vera (Mexico)

HITZALDIA · HARREMAN-ESTETIKARI ETA -PRAKTIKARI BURUZKO LEHEN JARDUNALDIAK

azaroak 15 (igandea) · 12:15etatik 13:00etara · Montehermoso Kulturunea · Frai Zacarias Martinez kalea, 2 · Vitoria-Gasteiz

Non hasten da lurraldea? Nolako gizarteak irudikatu, eraiki eta mantendu nahi ditugu? Halako galderak egiten ditu, besteak beste, Arteen eta Humanitateen 4X4 Jaialdiaren hamazazpigarren edizioak. Bosgarren urtez eta Playas de Rosaritoko Arteen Zentroarekin lankidetzan, Mexikoko Pacífico Norte eskualdean antolatuko da.

4X4 Jaialdia kulturen arteko espazio bat da, ezagutzaren hainbat alorretako praktikak eta pentsamenduak jorratzen dituena, hala nola arte eszenikoak, ikusizko arteak, soinu-arteak, humanitateak, poesia, kazetaritza eta filosofia. Gure asmoa zera da: gorputzari, koreografiari eta hiriari loturiko praktika artistikoei buruz hainbat ikuspuntutatik hitz egiteko, pentsatzeko eta eztabaidatzeko aukera emango digun espazio bat sortzea. Orain arteko hamasei edizioetan Latinoamerikako, Europako eta Asiako 500 artistak baino gehiagok parte hartu dute, eta Mexikoko hamabost hiritan aurkeztu dute haien lana.

Shantí Vera (Mexiko, 1986) artista, koreografoa, dantzaria, gorputzaren ikertzailea, pedagogoa, eszena-zuzendaria, egilea eta kuradorea da. Haren artelana gorputzaren defentsaren aldeko apustu poetiko-politikoa da, zeinak mugitzen diren gorputzetatik antolaketa sentikorreko estrategiak irudikatzeko gaitasun gisa ulertzen baitu koreografia. CUATRO X CUATRO laborategi transnazionalaren sortzailea eta zuzendaria da 2007tik, eta 4x4 jaialdiarena 2009tik. Esperimentaziorako, ikerketarako eta topaketarako espazioak sortu ditu, gorputz praktikak, pentsamendu estetikoa eta prozesu komunitarioak artikulatuz. Proiektu horien bidez lankidetza-sareak sustatu ditu Mexikoko, Latinoamerikako eta Europako artisten artean, eta kuradore-lanak egin ditu Mexikoko hamabost hiritan, bostehun partaidetza baino gehiagotan. Hala, harreman-ekosistema gisa sendotu du jaialdia, zeinak praktika kokatu eta kolektibo moduan ulertzen baitu sorkuntza.

MURUAKO GIZARTE ETXEA
Dominizubi kalea · Murua

BARATZA ARETOA
Aldabe Plazatxoa, 4
Vitoria-Gasteiz

SANTA ISABEL HILERRIA
Arriagako Atea Kalea, 26A · Vitoria-Gasteiz

MONTEHERMOSO KULTURUNEA
Fray Zacarías Martínez Kalea, 2 · Vitoria-Gasteiz

IAK | IZASKUN ARRUE KULTURGUNEA
Errementari Kalea
Vitoria-Gasteiz

ERDI AROKO HIRIGUNEKO ENPRESA ZENTROA - AURKEZPENA
Eskola Kalea, 10 · Vitoria-Gasteiz

ZIGOITIKO KULTUR ETXEA/ EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROA
Bengolarra kalea, 1 · Ondategi

ARKABIA
Postas Kalea, 13 · Vitoria-Gasteiz

LOMA JENERALAREN ENPARANTZA
Vitoria-Gasteiz

TXIMELETA LEKU
Txalaparta Kalea, 16 · Vitoria-Gasteiz

HABEMUS ESTUDIO
Zumakadi Ibilbidea, 25 · Vitoria-Gasteiz

HARRESI ARETOA
Zapatari Kalea, 15 · Agurain

MAISUEN ETXEA
Norte Kalea, 26 · Elciego

fiAR

arabako nazioarteko
arte erlazional jaialdia

ANTOLATZAILEAK

IARA SOLANO ARANA

iteraer

BABESLEAKIN

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

araba álava

Vital FUNDAZIOA

AC/E ACCIÓN CULTURAL ESPAÑOLA

TIENES MUCHO QUE VER BADUKIAZU ZERKUSIRIK
Elciego

AGURAIN Udala

»Here+Now
Performance Created in England

PANTA RHEI

GOBIERNO DE ESPAÑA · MINISTERIO DE CULTURA · inaem
INSTITUTO NACIONAL DE LAS ARTES ESCÉNICAS Y DE LA MÚSICA

LAGUNTZAILEAK

montehermoso · Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

habemus estudio

IAK Izaskun Arrue Kulturgunea

ARTES ESCÉNICAS BARATZA ARTE ESZENIKOAK

iara Solano Arana
zuzendaritza artistikoa,
koordinazioa eta ekoizpena

Beatriz Lagartos - iteraer
kozuzendaritza, ekoizpena eta
jasangarritasuna

Gentzane Martínez de Cestafe
ekoizpena eta bitartekaritza

Adam Ireland
zuzendaritza teknikoa eta
ekoizpena

Teklak
ikus-entzunezko dokumentazioa eta
prentsa

Haizea Rico
sareak / @festivalfiar

Caterina Varela
diseinu grafikoa

ERRONKA GARBIA
EKITALDI EVENTO
JASANGARRIA INGURUMENERAKO
AMBIENTALMENTE SOSTENIBLE

EKITALDI JASANGARRIA